## 6/2019 EBAZPENA, irailaren 18koa

**PRESIDENTEA:** María Barrena Ezcurra.

**MAHAIKIDEA:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

**IDAZKARIA:** Iñigo Alvear Lekue.

Goian adierazitako kideek osatzen duten Bizkaiko Foru Aldundiaren Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak honako EBAZPEN hau eman du andreak aurkezturiko salaketaren harira. Iñigo Alvear Lekue jaunak jardun du interesdunaren txostengile gisa, eta Batzordearen iritzia adierazi du.

### AURREKARIAK

2019ko abuztuaren 7an, andreak sinatutako gardentasunaren arloko salaketa jaso zen Bizkaiko Foru Aldundiaren erregistroan (erregistro-zenbakia: 1.237). Han adierazi zen Finken Administratzaileen Bizkaiko Elkargoari zuzenduta zegoela salaketa, elkargo horrek, bere kideen aurrean, etengabe neurririk ez hartzeak salatzaileari eragindako *"babesgabetasuna"* zela-eta.

Adierazi beharra dago salaketa horrek jarraipena ematen diola andreak 2019ko maiatzaren 6an aurkeztu zuen beste salaketa bati. Hura onartezintzat jo zen, aurrerago zehaztuko dugunez, maiatzaren 16ko 1/2019 Ebazpenaren bidez.

Gaur egungo salaketa andreak, aurretik, finken administratzailearen aurka jarri zuen beste salaketa batek eragin zuen. Gizon horrek Muskizko Bide Zaharra kaleko 7. zenbakian kokatutako finkaren administratzaile-lanak egiten zituen.

## RESOLUCIÓN 6/2019, de 18 de septiembre.

**PRESIDENTA:** María Barrena Ezcurra.

**VOCAL:** Amaia Zurbano-Beaskoetxea Laraudogoitia.

**SECRETARIO:** Iñigo Alvear Lekue.

La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia, compuesta por los miembros anteriormente expresados, ha pronunciado la siguiente RESOLUCIÓN ante la denuncia formulada por actuando como ponente Don Iñigo Alvear Lekue, quien expresa el parecer de la Comisión

### ANTECEDENTES DE HECHO

Con fecha 7 de agosto de 2019 tiene entrada en el registro de la Diputación Foral de Bizkaia (número 1.237) denuncia en materia de transparencia suscrita por En la misma se hace constar que la denuncia se dirige frente al Colegio de Administradores de Fincas de Bizkaia, ante la *"indefensión"* que produce en la denunciante la constante y reiterada falta de asunción de medidas por parte de dicho colegio ante sus afiliados.

Debe señalarse que la citada denuncia constituye una continuación de la formulada por la con fecha 6 de mayo de 2019, que fue declarada inadmisible, tal y como se detallará más adelante, mediante Resolución 1/2019, de 16 de mayo.

En efecto, la denuncia trae causa nuevamente de la denuncia originalmente presentada por la Sra. frente al administrador de fincas Don quien realizaba las funciones de administración de la finca sita en la calle Antiguo 7 del municipio de Muskiz.

Salatzaileak honako agiri hauek aurkeztu ditu bere idazkiarekin batera:

- Finken Administratzaileen Elkargoan aurkeztutako alegazio-idazkia, bai eta administratzaileak aurkeztutako alegazioak ere.
- Finken Administratzaileen Bizkaiko Elkargoak, alegazio horien harira, 2019ko uztailaren 29an emandako ebazpena.
- Salatzaileak Finken Administratzaileen Elkargora bidalitako mezu elektronikoaren kopia.

**ZUZENBIDEKO OINARRIAK**

<u>Lehenengoa</u>.- Aurrekarietan azaldu denez, andreak batzorde honetan aurkeztutako salaketaren edukia bat dator 2019ko maiatzaren 6ko salaketan adierazitakoarekin. Hain zuzen ere, batzorde honek lehenengo salaketa ez onartzea erabaki zuela jakinarazi ondoren salatzaileak egindako jarduketa gehigarrien berri ematen du, zehatz.

Hortaz, aintzat hartuta bai salatzailea eta bai salaketaren xedea maiatzaren 6ko ebazpena eragin zutenen berdin-berdinak direla, batzordeak han ageri diren zuzenbideko oinarriak hitzez hitz jaso besterik ez du, honako era honetan:

Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordea Bizkaiko Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren 27. artikuluaren bidez eratu zen. *Foru Arau horren 29. artikuluaren arabera, hauexek dira batzordearen egitekoak:*

La denunciante adjunta la siguiente documentación a su escrito:

- Escrito de alegaciones interpuesto ante el Colegio de Administradores de Fincas, así como las alegaciones formuladas por el administrador Don
- Resolución del Colegio de Administradores de Fincas de Bizkaia en relación con las citadas alegaciones, de fecha 29 de julio de 2019.
- Copia del correo electrónico remitido por la denunciante al Colegio de Administradores de Fincas.

**FUNDAMENTOS DE DERECHO**

<u>Primero</u>.- Conforme se ha señalado en los antecedentes de hecho anteriores, el contenido de la denuncia presentada ante esta Comisión por parte de la Sra. presenta un contenido idéntico al de la presentada con fecha 6 de mayo de 2019, constituyendo un detalle de las actuaciones adicionales realizadas por la denunciante tras la notificación de la inadmisión de su denuncia original por parte de esta Comisión.

En este sentido, habida cuenta de que tanto la denunciante como el objeto de la denuncia son idénticos a los que motivaron la Resolución 1/2019, de 6 de mayo, esta Comisión no puede sino transcribir el contenido literal delos fundamentos de derecho de la misma, en la forma en que se detalla a continuación:

*"La Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia se crea por el artículo 27 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia de Bizkaia. El artículo 29 de la citada Norma Foral establece como funciones de la Comisión:*

1. Hona hemen Gardentasunaren eta Erreklamazioen arloko Erreklamazioen Batzordearen egitekoak:

1) Informazio publikoa eskuratzeko eskubidea esanbidez edo ustez ukatzearen ondorioz aurkeztutako erreklamazioak ebaztea.

2) Arduradun publiko eskudunei eskatzea diziplina-espedienteak has ditzatela Foru Arau honetan gardentasunaren inguruan ezarritako betebeharra bete ez den zantzu sinesgarriak (horri buruz eginiko txostenaren bidez egiaztatuak) daudenean.

3) Jardueraren urteko memoria egitea. Hura Lurralde Historikoko Batzar Nagusietako batzorde eskudunari aurkeztuko zaio. Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordeak izendaturiko pertsona batzordean agertuko da memoria horren berri emateko.

4) Behar izanez gero, Bizkaiko Foru Aldundiko organo eskudunei laguntzea, foru-erakundean eta foru-sektore publikoko entitateetan gardentasun-politikak bultzatzeko eta sustatzeko.

Bizkaiko Foru Aldundiko Gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta Bizkaiko foru-sektore publikoko entitateen antolaketa- eta funtzionamendu-araudiak, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretu bidez onetsitakoak, honako hau ezartzen du 18. artikuluan:

Hona hemen Batzordearen osoko bilkuraren eskumenak:

a) 1/2016 Foru Arauan ezarritakoari jarraituz ebaztea informazio publikoa eskuratzeko eskubidea esanbidez edo isilbidez ukatzearen ondorioz aurkeztutako erreklamazioak .

.../...

1. Son funciones de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia y de Reclamaciones, las siguientes:

1) Resolver las reclamaciones frente a la denegación expresa o presunta del derecho de acceso a la información pública.

2) Instar a las y los responsables públicos competentes la incoación de expedientes disciplinarios cuando existan indicios fehacientes, acreditados mediante informe evacuado al efecto, de incumplimiento de las obligaciones de transparencia previstas en la presente Norma Foral.

3) Elaborar una Memoria anual de su actividad que será presentada ante la Comisión competente de las Juntas Generales del Territorio Histórico. La persona que designe la Comisión de Reclamaciones en materia de transparencia comparecerá ante la comisión para dar cuenta de tal memoria.

4) Colaborar, en su caso, con los órganos directivos competentes de la Diputación Foral de Bizkaia en el impulso y fomento de las Políticas de Transparencia en la institución foral y en las entidades del sector público foral.

El Reglamento de organización y funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, aprobado por Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, establece en su artículo 18:

Son competencias del Pleno de la Comisión:

a) Resolver las reclamaciones contra la denegación expresa o tácita del ejercicio del derecho de acceso a la información pública en los términos establecidos en la Norma Foral 1/2016.

.../...

*i) Hala badagokio, gardentasunari buruzko araudia ez betetzeagatik jarritako salaketei erantzutea eta horiek izapidetzea. Horretarako, kasu bakoitzaren larritasunari erreparatuta eta aldez aurretik txostena egin ondoren beharrezkoa bada, organo eskudunari eskatuko dio diziplina-espedientea abiarazteko,* Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren *29.2, 34.3., 34.4. eta 39 artikuluetan ezarritako baldintzetan.*

*i) Atender y tramitar, en su caso, las denuncias por incumplimiento de la normativa de transparencia, instando al órgano competente, si fuera necesario atendiendo a la gravedad de los diferentes supuestos y previo informe al respecto, la incoación de un expediente disciplinario, en los términos establecidos en los artículos 29.2, 34.3 y 4 y 39.4 de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia.*

*j) Foru-administrazioaren eta foru-sektore publikoko entitateen arduradunei behin-behinekoz ohartaraztea ez dela bete gardentasunari buruzko araudia, 1/2016 Foru Arauaren xedapen iragankorrean ezarritakoari jarraituz.*

*j) Advertir transitoriamente del incumplimiento de la normativa en materia de transparencia a las personas responsables de la Administración Foral o de las entidades de su sector público, en los términos previstos en la disposición transitoria de la Norma Foral 1/2016.*

*Bestalde, Bizkaiko Gardentasunari buruzko Arauaren 1. artikuluak, "Xedea" izenekoak, honako hau dio:*

*Por su parte el artículo 1 de la Norma de Transparencia de Bizkaia titulado "Objeto" determina:*

*1. Foru arau honen xedea da gardentasuna bermatzea, bere bi dimentsioetan (publikotasun aktiboa eta informazio publikoa eskuratzeko eskubidea), Bizkaiko Lurralde Historikoko Foru Aldundian eta foru-sektore publikoko erakundeetan.*

*1. La presente Norma Foral tiene como finalidad garantizar la transparencia, en su doble dimensión de publicidad activa y de derecho de acceso a la información pública, por lo que afecta a la Diputación Foral y las entidades del sector público foral del Territorio Histórico de Bizkaia.*

.../...

.../...

**Bigarrena.-** *Idatziz jaso dugun arauditik ondorioztatzen da Batzorde honek ez duela eskumenik Finken Administratzaileen Bizkaiko Elkargoko kide baten aurka jarritako salaketaren berri izateko, Bizkaiko Gardentasunari buruzko Foru Araua Bizkaiko Foru Aldundiari eta foru-sektore publikoa osatzen duten erakundeei aplikatzekoa delako, eta, beraz, batzorde honek ez duelako eskumenik Bizkaiko Foru Aldundiari edo foru-sektore publikoari egotzi ezin zaizkien ez-betetzeengatik aurkeztutako salaketei erantzuteko eta haiek izapidetzeko.*

**Segundo.-** *De la normativa que hemos transcrito se desprende la falta de competencia de esta Comisión para conocer de una denuncia presentada contra el Colegio de Administradores de Fincas de Bizkaia por la denuncia cursada contra uno de sus miembros, toda vez que la Norma Foral de Transparencia de Bizkaia resulta de aplicación a la Diputación Foral de Bizkaia y a las entidades que integran el sector Público Foral, careciendo esta Comisión de competencia para atender y tramitar denuncias presentadas por incumplimientos no atribuibles a la Diputación Foral de Bizkaia o al sector Público Foral.*

*EBAZPENA*

*RESOLUCIÓN*

***Lehenengoa.-*** *andreak aurkeztutako salaketa EZ ONARTZEA, batzorde honek EZ DUELAKO ESKUMENIK arlo horretan.*

***Primero.-*** *INADMITIR POR INCOMPETENCIA de esta Comisión la denuncia presentada por*

*(...)".*

*(...)".*

Horrenbestez, bidezkoa da berriz ere andreak aurkeztutako erreklamazioa onartezintzat jotzea, batzorde honek arlo horretan eskumenik ez duela-eta. Izan ere, erreklamazio horren harira esku hartzeko arrazoi den entitatea ez da sartzen Gardentasunari buruzko otsailaren 17ko 1/2016 Foru Arauaren aplikazio-eremu subjektiboan.

En consecuencia, procede nuevamente declarar inadmisible, por falta de competencia de esta Comisión, la reclamación formulada por toda vez que la misma trae causa de la actuación de una entidad excluida del ámbito subjetivo de aplicación de la Norma Foral 1/2016, de 17 de febrero, de Transparencia.

**EBAZPENA**

**RESOLUCIÓN**

**Lehenengoa.-** andreak aurkeztutako salaketa ONARTEZINTZAT JOTZEA, batzorde honek EZ DUELAKO ESKUMENIK arlo horretan.

**Primero.-** DECLARAR INADMISIBLE POR FALTA DE COMPETENCIA de esta Comisión la denuncia presentada por Doña

**Bigarrena.-** Ebazpen hau salatzaileari jakinaraztea.

**Segundo.-** Notificar esta resolución a la denunciante.

**Hirugarrena.-** Ebazpen hau Herri Administraziorako eta Erakunde Harremanetarako Foru Saileko Gobernamendu Onerako eta Gardentasunerako Zuzendaritzari jakinaraztea.

**Tercero.-** Comunicar esta resolución a la Dirección General de Buen Gobierno y Transparencia del Departamento Foral de Administración Pública y Relaciones Institucionales.

Ebazpen hau behin betikoa da, eta administrazioko bidea amaitzen du. Zuzenean aurre egin ahalko zaio Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzien Salan; horretarako, BI HILABETEKO epea izango da, jakinarazpena egiten den egunaren biharamunetik aurrera.

La presente resolución, que es definitiva, agota la vía administrativa y contra la misma se podrá interponer recurso contencioso-administrativo ante la Sala de lo Contencioso Administrativo del Tribunal Superior de Justicia del País Vasco, en el plazo de DOS MESES a contar del día siguiente al de su notificación.

Hori guztia, Bizkaiko Foru Aldundiaren uztailaren 26ko 128/2016 Foru Dekretuaren (Bizkaiko Foru Aldundiaren gardentasunaren arloko Erreklamazioen Batzordearen eta

Todo ello de conformidad con lo dispuesto en el artículo 27 del Decreto Foral de la Diputación Foral de Bizkaia 128/2016, de 26 de julio, por el que se aprueba el Reglamento

Bizkaiko foru-sektore publikoko erakundeen Antolaketa eta Funtzionamenduari buruzko Araudia onartzen duena) 27. artikuluan eta Administrazioarekiko Auzien Jurisdikzioa arautzen duen uztailaren 13ko 29/98 Legearen 10. eta 46. artikuluetan ezarritako irizpideen arabera.

Bilbon, 2019ko irailaren 18an.

de Organización y Funcionamiento de la Comisión de Reclamaciones en materia de Transparencia de la Diputación Foral de Bizkaia y de las entidades del sector público foral de Bizkaia, y en los artículos 10 y 46 de la Ley 29/98, de 13 de julio, Reguladora de la Jurisdicción Contencioso-Administrativa.

En Bilbao, a 18 de septiembre de 2019.

| | | |
|---|---|---|
| **PRESIDENTEA**<br>**LA PRESIDENTA** | **MAHAIKIDEA**<br>**VOCAL** | **TXOSTENGILEA ETA IDAZKARIA**<br>**PONENTE Y SECRETARIO** |